

Elizaren gainbehera, Mendebaldeko gizartearen gainbeheraren isla

«Zerk ekarri gaituen honat» aztertu du 'Oilarra kukuruka' saiakeran Xipri Arbelbide apaiz, idazle eta kazetari heletarrak

N. AZURMENDI

DONOSTIA. 2014ko 'Euskal Elizaren historia' (Elkar) liburuan, kezka handiz ikusten zuen instituzioaren etorkizuna Xipri Arbelbide (Heleta, Nafarroa Behea, 1935) apaiz, idazle eta kazetariak. Orduko «Eliza ez ote liteke

gibelka ari, hain zuzen, gizatasunari doakionaz, gizartea bera gibelka doalakit?» galderari baieztoko erantzuna eman dio orain, Alberdaniak abenduan argitaratu eta aste honetan Donostian aurkeztu den 'Oilarra kukuruka' liburuan.

Lanak Bilboko Udalak antolatutako Miguel de Unamuno XX. Saiakera Lehiaketaren euskarazko saria jaso zuen 2019an. Egileak argitu bezala, 2016an 60 bat apaizek Baionako apezpikuari igorri zioten eskutitzean du jatorria «Beste apaizoi galdetu ziguten zein zen

gure ikuspegia. Hasi nintzen idazten zertan nengoen akort eta zertan ez; hasi nintzen gauzak gehitzen, eta liburu bat egin nuen».

Inazio Mujika Irola editorearen hitzetan, «kristau batek, apaiz

katoliko batek idatzitako liburua» da, baina edonork irakur dezake, «baita fedegabe batek ere». «Baldintza bakarra da buru irekia izatea eta gizakiari dagokion ezer arrotz ez izatea», esan zuen, liburua batez ere «gizarteagatik kezkatzen» delako.

Xipri Arbelbideren aburuz, «Eliza Katolikoaren gainbehera gure mendebalde honetako gizartearen gainbeheraren» isla da, «beste kontinente batzuetan inoiz baino hobeto dagoen» baitago. Liburua idatzi du, hain zuzen, «puntu bat egiteko, zertan giren eta zerk ekarri gaituen honat jakiteko, eta beste bide bat hartu behar ote den ikusteko». Eta horrek gai askori buruz jarduteko parada eman dio, besteak beste gaitz eta arazo askoren muinean kokatzen duen kontsumismoaz.

OILARRA KUKURUKA XIPRI ARBELDIDE

Generoa: Saiakera. XX. Unamuno Saria. Argitaletxea: Erein. Orri kopurua: 232. Salneurria: 18 euro.



Domingo 24.01.21

EL DIARIO VASCO

ridun nautaturiko Louise Glück poeta estatubatuarren 'The Wild Iris', hark aurkeztutako proiektuak irabazi baitu Literaturako Nobel saridunak euskaratzeko AED elkarteak eta Elkar Taldeak Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin antolatutako Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketa.

Erabakia Itziar Diaz de Ultzurrunek, Peru Iparragirrek eta Nagore Tolosak osaturiko epaimahaia hartu zuen, aurkeztutako lan guztiak aztertu ostean. 'The Wild Iris' 1992an argitaratutako poemarioa da, eta bertan idazleak bere lorategian gertatzen diren aldaketeei erreparatzen die, bizitzari eta heriotzari butuzko metafora indartsuak eraikiz. Laudorio ugari ez ezik, Pulitzer saria jaso zuen 1993an, poesia atalean. Euskaraz urte amaieran irakurri ahalko da.